

BERRIGARA

6. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1996, azaroak 22

**Herriko kotxe
pilotuek Xerezen
dute azken karrera**



Kotxe pilotuak



ION

Urarte, 10 BERGARA • Telefonoak: 76 47 49 / 76 47 73

AUTOAK

- Hasierako prezio bereziak.
- Aukera zabala bigarren eskuko kotxeetan.



**ZATOZ Berlingo
BERRIA IKUSTERA!**



ZAIAZKO

TB • BIDEOA • HI-FI APARAILUAK

Telesforo Aranzadi, 3. Telefonoa eta faxa: 76 10 66. BERGARA

ZAIAZKOn *elektronika* kontuetan **adituak** gara.
Edozein markatako **aparailuak konpontzen**
ditugu. Zerbitzu teknikoa dugu.

Satelite bidezko telebistak ikusteko **antena**
parabolikoak jartzen ditugu. Zatoz ikustera!!

Marka onenak ditugu: Technics, Panasonic,
Sony, Pioneer, Philips.



GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalez osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak:
**CRISTOBAL
ESTOMBA
GOMEZ
MURGIENDO
OTALORA
RUIZ**



Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberebizar
Aitziber Azkondo

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberebizar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.200 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

NEKANE GABILONDO

Jarduneko dinamizatzailea

- Nolakoa harrera izan zuen astebukeraren Kartzelaren zabal-tzeak?

- Oso balorazio positiboa egin beharrean gaudela, gaztetxo ugari etorri ziren eta. Zapatuan 75 bat neska-mutil etorri ziren eta domekan, berriz, 80-90 inguru. Etorritako gehienak 12 urtetik 14 urtera bitartekoak ziren baina adin horretatik gorakoek ere aukera daukate hona etortzeko.

- Gaztetxoek antolatutako ekintzetan parte hartu zuten?

- Partaidetza handia izan zen, bai. Zapatuan futbolin eta pin-pon txapelketak izan ziren, baita karaokea ere, eta domekan Gaztainerre jaiak ere arrakasta handia izan zuen. Guztira, 18 kilo



gaztaina jan ziren.

- Astebukaera hone-tarako, zer?

- Zapatuan ginkana izango da eta domekan patata tortila lehiaketa. Astebukaeroro gauza bereziak egongo dira. Bestalde, esan behar da abendutik aurrera karnta beharrezkoa izango dela. Gaztetxoek lokal bat dute orain elkarrekin egoteko eta jolasteko.

“Gaztetxoek elkarrekin egoteko eta jolasteko lokal bat daukate orain Kartzelan”

I T U R R I O N E T I K

Juan Jose Alvarez donostiarra UNEDeko zuzendari berria

Juan Jose Alvarez donostiarra izango da Bergarako UNEDeko zuzendari berria. Joan zen urtean UNED zentroaren berregituraketari ekin zitzaionetik UNEDek ez du zuzendaririk izan, Juantxo Madariaga aurreko zuzendariak bere dimisioa aurkeztu baitzuen.

Ordutik Gonzalo Sacristan bilbotarra izan da gerente lanetan eta orain Alvarezen izendapena etorri da. Joan zen urtean UNEDeko Euskal Kultur Departamentua (EKD) kentzeko erabakia hartu zen eta horrek polemika dexente sortu zuen. Aurtengo ikasturtean iazkoaren antzerako matrikulak egin dira. UNEDeko iturrien arabera, 1.500 matrikula inguru egin dira.

E S A N
D U T E

“Formato txikiak askatasun haundiagoa ematen dit, askeago sentitzen dut neure burua, basatiago. Marraskia sarritan beste lan batzuen zirriborrotzat, sortze-lan baten bitarteko pausotzat, jo izan da; honako hauek [Donostiako DV galerian Manuk erakusten dituenak], ostera, obra bukatuak dira”

MANU MUNIATEGI

Margolaria
EL DIARIO
VASCO

“Daewoo konpainiaren inbertsio berrietan pentsatu baino lehen, lehendabizi Gasteizen martxan jarriko den hozkailu lantegiak ondo funtzionatu behar du.

Hortik abiatuta, zabalkunde prozesu osoan lanean hasiko ginateke.

Nagusiki Daewoo Electronics izango litzateke, baina baliteke beste sektore batzuetara ere zabaltzea”

JAVIER RETEGI

Industria
Sailburua
EL DIARIO
VASCO

**TIEMPO DE MATAR**

Barikua: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30 (Ikuslearen eguna).

**DRACULA Un muerto muy contento y feliz**

Zapatua: 17:00, 19:30.

Domeka: 17:00.

**DERSU UZALA**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ Joel Schumacher zuzendariak **John Grisham** best-seller idazlearen nobelan oinarritutako filmea errodatu du **Sandra Bullock, Samuel L. Jackson, Matthew McConaughey** eta **Kevin Spacey** aktoreen laguntzaz. Hilketa kasu batean abokatu batek eta bere laguntzaileak bizitza bat salbatzeko ahaleginak egingo dituzte eta ez da errurako tarterik izango.

▼▼ Mel Brooks zuzendaria (*El jovencito Frankenstein*) eta **Leslie Nielsen** (*Agarralo como puedas*) aktorea komedietan murgildu dira beti. Oraingo honetan Dracularen mitoa hankaz gora jarri dute. Dracula kondea **Mina (Ami Yasbeck)** gaztearen atzetik dabil eta **Van Helsing** doktoreak (**Mel Brooks**) Dracula akabatu nahi izango du...

▼▼ 1975 urtean atzeritar filme onenaren saria irabazi zuen filmearen berriztatutako kopia estrainatu da aurten. **Akira Kurosawa** zuzendari ospetsuaren filme honetan, *Dersu Uzala* ehiztariaren istorioa azaltzen zaigu. Azterketa geologikoak egiten ari den militar talde batek *Dersurekin* topo egingo du. Militarrak txundituta geratuko dira *Dersuk* bizitzaz duen ikuspegiarekin...

Deiak

▼ **1951n** jaiotako bergararren afaria Antxonin azaroaren 30ean. Izen-ematea Antxonin bertan.

▼ **1944an** jaiotako bergararren anaiarteko eguna azaroaren 30ean. 7etan meza Santa Marinan eta 9etan afaria Azpeitxi jatetxean. Izen-ematea 76 28 33 (Elisa Ugarte) edo 76 23 70 (Sanchez) telefonoetan.

▼ **1945eko** bergararren afaria Antxonin hilaren 30ean. Izen-ematea (2.000) bertan hilaren 23rako.

▼ **1957an** jaiotako bergararren afaria Zumelagan hilaren 30ean. Izen-ematea (1.000 pta.) Intxortan.

▼ **1970ean** jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoen bazkaria azaroaren 30ean. Izen-ematea Kortazarren (2.000 pta.).

Ogia

▼ **Domeka 24:** Ogizun.

FARMAZIAK

▼ **Eguakitzita 22:** Estella/Corcuera.

▼ **Zapatua 23:** Mozos/Irizar.

▼ **Domeka 24:** Mozos/Amezua.

▼ **Astelehena 25:** Camacho/Ruiz.

▼ **Martitzena 26:** Puy/Morales.

▼ **Eguaztena 27:** Guallar/Azkoaga.

▼ **Eguena 28:** Estella/Español.

AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32


Justo Garate seilutan

Bergarako Bildumazaleen elkartearen 25. urteurreneko erakusketa

Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen elkarteak Justo Garateri eskeinutako erakusketa ikusgai izango da igandera arte Kultur Etxean. Elkarateak antolatzen duen XXV. erakusketa den honetan herriko bildumazaleek Justo Garate bergarar ospetsuaren inguruko materiala ekarri dute Kultur Etxeko erakustokira. Elkarateko kide baten hitzetan, "erakusketa osoa Justo Garateri eskeinuta dago eta, besteak beste, Justok idatzitako eskutitzak, argitalpen ezberdinak, liburuak eta berarekin zerikusia duten beste hainbat material bildu dugu: Nazioarteko Gurutze Gorriko seiluak, Medikuntza Nobel Sarien inguruan egindako bitolak, etabar. Material gehiena seiluak dira; txanponei dago kienez, Justo Garate jaio zen urtean, 1900. urtean, egindako bi txanponak eta, era berean, hil zen urtean (1994.ean) egindakoak ekarri ditugu".

Gaur egun 82 lagun ari dira Bergarako Seilu eta Diru Bildumazaleen elkartearen eta urtean behin horrelako erakusketa monografiko bat antolatzen du-

Kultur Etxean domekara arte zabalik izango da Justo Garateri eskeinutako erakusketa.



te. "Herriko ondareari eta beste zenbait pertsona ospetsuri buruzko erakusketak antolatu ditugu eta aurten bidezkoa iruditu zaigu Justoren omenezkoa egitea. Material bilketa? Ez da hain zaila izan, ez. Afizioa izan behar da, rastreatu eta estudiatu zer non dagoen. Eta, egia esan, jendeak uste baino afizio merkeagoa da hau. Material garestia badago bai, baina baita denon eskura dagoena ere".

Interesatuiek elkarteak aurreko urteetan argitaratutako materiala eskuratu ahal izango dute Kultur Etxean.

Bestalde, elkarteak bere zilarrezko eztaiak ospatuko ditu datorren urtean eta apirila aldera San Martini buruzko erakusketa antolatuko dute, San Martinen martirioaren 400. urteurrenaren inguruko ospakizunen barruan.

Santa Zeziliako kontzertua Udal Musika Bandak

Udal Musika Bandak Santa Zezilia eguna ospatuko du domekan. Goizeko 10etan meza izango da San Pedro parrokiaren ondoren Bandako kideek kalejira egingo dute, Gorka elkartearen ereserkia es-

keiniz. Eguerdian, Alfredo Glez. Chirlaquek zuzendutako taldeak kontzertua eskeiniko du Novedades aretoan ondoko programarekin: *La millor terra del mon* (Rosillo), *El barbero de Sevilla* (Rosinni), *Lorea* (Miguel Glez. Bastida), *La conquista del paradiso* (Vangelis) eta *Katiuska* (Sorozabal). Nerea Alzola, Nerea Barrenetxea (klarineteak), Xabier Markiegi (bonbardinoa) eta Peru Sagarna (tronpeta) gazteek Bandarekin debutatuko dute domekan. Kontzertuaren ondoren Bandako kideek bazkaria izango dute Azepeitxi jate txean.

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.

Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Langabezia denon arazoa?

Orain aldian, Bergaran edo inguruko herrietan langabeziari buruzko hitzaldi bat edo beste aditzeko aukera izan dugu. Eta dirudie-nez, gaitz honi inortxok ez dio asmatu oraindik sendagairik. Antzinatean izurritea zenean bezala gizarte guztia mobilizatu nahi da kalte beldurgarria konjuratzeko.

Langabezia gizarte osoaren arazoa balitz bezala hartzen dugu. Batzuentzat bizkarra jasotzeko aitzakia ederra, baina dudarik gabe, gizarteak borondate ona kantitate izugarrietan isurtzen duela ahalegin honetan. Erakundeek, antolakuntza bereziak "Langai" dela eta bestea dela, makina bat ekintza eraman nahi da aurrera, arrakasta guztirekin, dena esan behar bada.

Halere, razionalitate apur bat jarriko bagenu arazo honetan, lehenbizi bururatuko zitzaigun galdera hau da: Nork esan du gizarte osoa interesatuta egon behar dela langabeziari aurka egiten? Ez al dira azken urte hauek banketxeek ezagutu dituzten onenak? Ez al da egia enplegua ugaltzen denean Estatu Batuetan burtsak behera egiten duela? Zergatik saiatu behar du estamentu orok langabeziaren aurka? Nork asmatu du axio-ma hau?

Gutxi batzuk tartaren zatirik handiena eskuratzeko modua egin badute, zergatik saiatu behar dira tarta doblea egiten, ez bazaie ziurtatzen tarta zati handiagoa oraindik ahora eramango dutela. Hauei ez zaie komeni on-dasun gehiago sortzea (lana), ez banatzea (soldata).

Beraz, arazo honetan ere irtenbiderik aur-

kituko badugu, lehenengo pausoa, inozokeriak alde batera utzi eta nortzuk langabeziaren aurka eta nortzuk alde dauden argitzea da. Garrantza baldin bada ere esatea, gure artean, oso urrun joan gabe, bada langabezia mantentzea komeni zaionik ere.

XABIER LARRAÑAGA (ELA)

EAJren Uri-Batzarraren oharra

Orain ere, HBko intolerante eta anti-demokratek, besteok "konbentzitzeko" duten modu bakarra erakutsi digute Bergaran.

Orangoan, alkatea eta bi zinegotzi izan dira, bihar edozein; aitzakia, presoak. Horrek guztiak, honako hau pentsatzera eramaten gaitu:

1.- Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide-en Batzordeak pasa den 96-10-3an hartutako erabakia aurrerapauso nabarmena izan da askatasunik gabeko herritarren giza eskubideekiko behar den errespetua eskatzeari dagokionez. HBk orangoan emandako laguntzak erakusten du aurreko portaeren al-daketa txiki bat; gutxienez, besteekin zerbait erabakitzeo ahalegin bat baita.

2.- Badirudi, HBko sektore batzuk ez dutela jarrera aldaketa hori onartzen eta hori dela medio entendimendurako eta jarrerak hurbiltzeko edonolako ahalegin zapuzten ahalegintzen direla. Ulergaitza da zerbaitetarako laguntza eskatzea, aldi berean laguntza eskatu diozun hori irainduz, erasotuz eta me-hatxatuz.

3.- Pasa den astelehenekoak eta antze-rako portaerak garbi adierazten dute egia absolutoarean jabe direla uste duten horiek, erru guztiak inori botaz gizarte osoa baztertu eta etsaitzat hartzen duten horiek, ez dutela arazoak soluzionatzeko inolako borondaterik; euren hutsuneak ezintasunak eta behin eta berriz errepikatutako porrot politikoa, preso-en kasua esate baterako, ezkututzea izanik euren helburu bakarra.

4.- Bergarako HBk azkenaldian izan dituen portaerak kontuan izanik, badirudi, nahita, Udalean ordezkatutako indar politikoen gehiengoarekiko ezadostasun politikoa bila dabilela; eta, gure ustez, borondateak batzeko jarreraren ordez (Eusko Legebiltzarrean gertatu zen bezala) euren "burbuilan" dauden jarrera totalitario eta intransigentee-nak gailentzen dira.

5.- Bai Victoriano Gallastegik, bai Koldo Pereirak eta bai Nere Amaia Zabalak, gure laguntza osoa daukate eta, ustez, baita Bergarako herritar gehientsuenena ere. Gure herria egunean egunean eraikitzeo langintzatik gero eta baztertuago-eta isolatuago egon nahi duten horiek euren jarrera berraztertuko duten esperantzan gaude.

Portaera suntsitzailerekin gorrotoak eta in-pultso negatiboak piztea besterik ez da lotzen. Gandhik zioen bezala "Bakea lortzeko, bakea dugu bidea".

EAJKO URI-BATZARRA

Tiira biraka



BITTOR RODRIGUEZ



Muniategiren erakusketa

Manu Muniategi margolari bergararrak, beste lau margolarirekin batera, bere marrazkiak erakusten ditu Donostiako DV Galerian. Erakusketa abenduaren 15era arte izango da zabalik.

Ikastolan ibilitakoen afaria

1968an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibili zirenek afaria egingo dute abenduaren 14an. Izen-ematea 76 03 72 (Nerea Lazpiur, arratsalde) edo 76 53 12 (Etxagi) telefonoetan egin daiteke.

Kotxea erre kara

M.L.A. bergararrak gidatzen zuen kotxea Deba ibaira jausi zen Herri Lagunakeko zubitik, zapatuan goizeko 5etan. M.L.A.k garrantzi gutxiko zauriak jasan zituen.

Bi milioi terdi inguru gastatu dira aurten pintadak kentzen

Zapatu gauean herriko hainbat tokitan egindako pintadak salatu zituen Gobernu Batzordeak as-teleheneko bileran. Era berean, Alkateari elkartasuna adieraztea erabaki zuen Batzordeak, *"kontutuan izanik hainbat pintada bere aurkakoak zirela"*, eta herritarrei laguntza eskatzeko deia zabaldu zuen Gobernu Batzordeak, *"herritarren batek horrelako ekintzak ikusiko balitu salatu ditzala"* eskatuz. Azkenik, Gobernu Batzordeak aurten, pintadak kentzen, 2.432.558 pezeta gastatu direla jakin arazi zuen.

Herriko hainbat etxetako harrietan

Aipatutako pintadak San Martin plazako lurrean, Barrenkalean, Komenion eta Udaletxean, Seminarioan edo Banco Gupuzcoanoko fatxadetan egin ziren zapatuan, goizeko 3ak aldera. Agertutako pintadak alkatearen kontrakoak eta Gaztetxearen aldekoak dira.

Udal Gobernuaren eta Gaztetxe bat aldarrikatzen duten gazteen arteko polemika orain dela 3 urte Komenioko Gaztetxea itxi zenetik dator.



Pintaden ondorioz, kalteak eragiten dira harrietan.

Tentsioa areagotu egin da gobernu taldeak gazteek okupatutako Goiko Estazioa botatzeko erabakia hartu ondoren. Zapatuan egindako pintadak, nahiz eta alkateari zuzendutakoak izan, herriari egindako eraso dela adierazi du Victoriano Gallastegi alkateak. Era berean, lokal bat aldarrikatzen dutenekin izan daitezkeen harremanak ez direla pintadekin batera errezten esan du alkateak.

Udalak ordaintzen ditu pintada guztiak

Bilboko Sormen enpresako langileek zapatuan bertan ekin zioten pin-

tadak garbitzeari. Jose Javier Pascual Sormeneko langilearen hitzetan, *"pintadaren arabera produktu bat edo beste erabiltzen dugu: pintura-kentzeakoak edo ura eta arara presioarekin jaurtiz. Esan behar da, zenbait kasutan harriak, are harriaren kasuan adibidez) kalte dexente jasotzen duela, besteetan ez. Dena den gero eta produktu hobeagoak badaude pintadak garbitzeko"*.

Udalak ordaintzen du herri osoan egindako pintadak kentzea, bai Udalaren edifizioetan egindakoak eta baita etxe partikularretako pareteetan egindakoak ere.

HILDAKOAK

Juana Lamarian Iturriaga
Azaroak 17, 81 urte.
Pedro Alonso Gallo
Azaroak 20.

JAIOTAKOAK

Ane Aramendi Madariaga
Azaroak 7.
Idoia Herran Suinaga
Azaroak 12.

egizabal

BERGARA
☎ 76 12 28

oinetakoak eta poltsak

ARRASATE
☎ 79 66 01

Ardanza Lehendakariaren bisita MAYCera

Jose Antonio Ardanza Lehendakaria atzo arratsaldean MAYCera bisita egitekoa zen. Lantegiko arduradunekin elkarrizketatu ondoren, MAYCen egiten den lana ezagutzeko aukera izan zuen Lehendakariak.

Raul Torres kubarraren emanaldia Pol-Polen

Raul Torres kantari kubarrak emanaldia eskeiniko du bihar, zapatua, eguerdiko ordubateetik aurrera Pol-Pol tabernan.

Bergarako Senideak-ek manifestaziorako deia

Bergarako Senideak-ek dei egiten du azaroaren 30ean Bilbon egingo den ixileko manifestazioan parte hartzeko. Aipatutako manifestazioan euskal preso politiko guztiak Euskal Herrian batzea, dagozkien oinarrizko eskubideen errespetoa bermatzea, larriki gaixo dauden presoak legea aplikatu eta baldintzapeko askatasunean jartzea eta zigorraren hiru laudenak beteta dituzten 125 presoiei legez dagokien baldintzapeko askatasuna aplikatzea eskatuko da.

Ski eta mendi materialaren azoka

Joan zen urtean bezala, aurten ere ski eta mendi materialaren azoka izango da Pol-Polen. Material bilketa azaroaren 25etik abenduaren 5era bitartean egingo da, astelehenetik ostiralera 19:00etatik 20:30etara eta zapatutan 17:00etatik 20:00etara. Azoka, berriz, abenduaren 9tik 15era izango da zabalik.



Abenduan ezagutuko da Eibar-Gasteiz autopistaren proiektu eta trazaketa definitiboak.

Ez ziren onartu autopistari eta ejerzitoari buruzko mozioak

Ejerzitoak egindako maniobrak salatu nahi ziren

Joan zen eguakitzeko Plenoan ez ziren onartu HBk aurkeztutako bi mozioak. Lehendabizikoan HBk Espainiako Ejerzitoak Euskal Herrian zehar egindako maniobra militarrek publikoki salatzea eskatzen zuen, maniobren inguruan sortutako "alarma soziala" dela eta, Defentsa Ministeritzara idatzizko kexa bat bidaltzeko eskatuz. Era berean, joan zen apirilaren 10ean Plenoak Bergara udalerrri intsumisioa deklaratu zuenez, espainiar ejerzitoa gure lurretan ez egotea eta bertatik ez pasatzea eskatzen zen HBren mozi-
oan. Azken puntuan alkatearen eta Gobernuaren jarrera pasiboa publikoki gaitzestea nahi zuten, "hone-lako kasuetan derrigorrezkoa baita berehalako erantzuna". HBk eta

EAK mozioari baiezeko botoa eman zioten eta EAJ kontra azaldu zen. Zazpina botoko berdinketa izan zen, HB eta EAKo kontzejal bana eta PSE-EEkoa falta zirelako. Mozi-
oa ez zen onartu alde batera edo bestera egiten ez zuelako.

Bigarren mozi-
oan, alkateak egunkari batean Eibar-Gasteiz autopistaren aldeko iritzia eman zue-
nez, autopistaren inguruko eztabai-
da Plenoan egitea eskatzen zuen HBk. HBren ustetan eztabaida za-
bala eman behar da azpiegitura
kontuetan gure herri, eskualde eta
bailaran. EAJk eta EAK aztera bota
zuten HBren proposamena. Alkate-
ak abendura aldera autopistaren pro-
iektua izan arte ez dela herrian izan-
go duen eragina aztertuko esan zuen.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31


Era guzietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamiseta, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu, zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorentzo, 7 behea. ☎ 76 50 39

LARREA
TABERNA
Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Euria, haizea eta hotza

Euria, hotza eta haizea izan dira azken egunotako protagonistak. Luis Mari Agirrek eman dizkigun datuen arabera, azaroko lehen 10 egunetan 15 litro metro karratuko jaso ziren Bergaran eta azaroaren 10etik 20ra bitartean, berriz, 145 litro jaso ziren. Euri gehien joan zen domekan egin zuen, 45 litro metro karratuko. Tenperaturei dagokienez, beste urte batzuetan baino tenperatura bajuagoak izan ditugu azken egun hauetan, zenbait egunetan 2 eta 3 gradu neurtu izan direlarik. Bestalde, astean zehar



haize bolada gogorak izan dira, hainbat kalte eragin dituztelarik. Ibargarain arbola baten adar bat jausi eta trafikoa moztu behar izan zen astearte goizean. Kanpazarretik Elgetara bidean ere (argazkian), errepidea moztuta izan zen pinuak kaminora jausi zirelako.

■ Ostegunean bota zen Goiko Estazioko etxea

Ostegun goizean bota zuten Gaztetxe bat eskatzen duen herriko gazte talde batek okupatuta zuten Goiko Estazioko etxea. Goizean goiz, udaltzainak eta edifizioa botatzeko agindua zuen enpresako langileak aurkeztu ziren Goiko Estazioan. Bertan inor ez zegoela konprobatu eta gazteen gauzen inbentarioa egin ondoren, edifizioa botatzeko lanak hasi ziren. Edifizioa bota duen Txebaz S.L. enpresak Goiko Estazioa erosteko proposamena egin zion Udalari bere garaian,



edifizioa berritzu eta bertan tailer eskola, kantina edo jatetxe bat jartzeko proiektua aurkeztuz baina Udalak ez zuen proposamen hori onartu eta azkenean edifizioa atzo bota zen.

Epaiketa bertan behera

Orain dela hiru urte Gaztetxearen desalojoaren ondoren gertatutako istiluak direla eta, eguasten goizean Bergarako bi gazteren kontra Donostiako Audientzia Probintzialean deituta zegoen epaiketa bertan behera geratu zen fiskalak aurkeztutako lekukoak (Victoriano Gallastegi alkatea, Koldo Pereira zinegotzia eta Udaltzainburua) ez zirelako agertu. Bi gazteen abokatuak, epaituak aske lagatzeko eskakizuna egin zion epaileari. Epaiketa, esan bezala, bertan behera geratu zen eta epaileak epaiketarekin aurrera jarraitzea edo bi gazteak aske uztea erabaki beharko du orain. Bergaratik bi autobus (100 bat algun) irten ziren eguasten goizean epaitutako gazteei euren elkartasuna adierazteko.

Txapa Irratia eta HIESa

Abenduaren leian ospatuko den HIESaren Nazioarteko Egunari begira, Txapa Irratiak hainbat ekitaldi antolatu ditu HIES Ekimena taldearekin batera. Eguastenean, hilak 27, HIESari buruzko hitzaldia izango da Pol-Polen arratsaldeko 7etan.

PYME jestio ikastaroa

Udalak 18 urtetik gorako langabetuei zuzendutako PYME jestio ikastaroa antolatu du, abenduaren 15etik martxoaren 19ra bitartean. Lanbide Hezkuntzako 2. mailako prestakuntza edo lan esperientzia izatea beharrezkoa izango da. Ikasle kopurua mugatua izango da eta izen-ematea abenduaren 9ra arte izango da zabalik Udaleko Enplegu eta Ongizate Zerbitzuan.

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTZO
ILEAPAINDEGIA

Kabia TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.
Karta (2.000-3.500 pzt. artean).
Okela eta arraina parilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

Presoak direla eta, azkenaldian izan diren istiluei buruzko eztabaida

Azaroaren 4ko ezohizko Plenoaren ondoren izandako gertakariak polemika piztu dute Udal Gobernuaren eta HBko zinegotzi taldearen artean.

Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordeak euskal presoenguz inguruan onartutako agiria izan zen aztergai Plenoan. Idatziak zituen 7 puntuei 8. bat gehitzea proposatu zuen HBk baina Udal Gobernuak puntu hori ez onartzea erabaki zuen. Puntu horretan, *"akordio bonetan erabakitakoak aurrera eramatea bermatu eta behar duen jarraipena egitea"* eskatzen zen eta horretarako, batzorde bat eratztea.

Udal Gobernuaren arabera, *"ez genuen puntua onartu udal batzorde batek Legebiltzarren erabakien jarraipena ez duela azkartzen uste dugulako, baina Senideak eta Gestorek izan dituzten eskabide guztiak pertsonalki jasotzeko prest azaldu zen alkatea, Legebiltzarrak horretarako duen batzordera bideratzeko"*.

Gobernu Batzordeak azaroaren 11n onartutako idatzian, alkateak HBko zinegotziak Plenoaren ondoren gertatu ziren istiluen erantzule egiten ditu; *"ekintza horiek ez ditut oraingoz epaitegian salatuko, nire ustez HBko agintarien artean zentzua esnatzen hasteko ordua delako eta, guztia bide demokratikoetatik bideratzeko; eta*



Presoak direla eta, eztabaidak eta istiluak izan dira azkenaldian Bergaran. ARTXIBOA.

HBk hainbeste salatzen dituen giza eskubide horiek guztioi errespetatzen hasi beharra dago". Era berean, alkateak zalantzan jartzen du HBren jarrera: *"Gobernu honek ematen duen edozein pauso positibo HBk ez duela batere baloratzen pentsatzen basita nago eta presoenguz gaiarekin HBk zein interes ote duen galdetzen diot neure buruari; ekintzetan parte hartu zutenei argi utzi nahi diet markatutako bidetik jarraituko dugula, presoenguz hurbilketa eta euren arazoak konpontzea lortzeko lanean. HBk gure planteamenduen aurrean orduko ekintzekin erantzuten jarraitu behar badu, legeak babesteko ematen dizkigun legezko neurriekin jokatu beharko dugu"*.

HBko zinegotziek tripartitoaren idatziari erantzun nahi izan diote; *"gu-*

re ustetan aurpegi zuri-keta baino ez da izan tripartitoak eta bereziki EAJk moztio honekin egin duena. Gobernuaren akordioak dio HB ez da goela prest beraiek emandako inongo aurrerapausurik onartzeko eta hori gezur borobila da. Gusto haundiz hartuko genuke euskal presoenguz giza eskubideen defentsan emandako edozein urrats, baldin eta eraginkorra balitz, eta gaurdaino ez dugu horrelakorik somatu".

HBk zalantzan jartzen du alkatearen interesa presoengan; *"ez dugu uste zilegitasunik duenik HBri presoenganako interes eza edota interes ilunik leporatzeko bere alderdiak giltzarri papeira bete baitu dispertsioaren gaian. Gainera alkatea 6 urtetan ez da presoenguz gaiekin ezertarako arduratu. EAJk alkateza*

duen herri askotan sortu da guk eskatutako batzordea baina hemen zeharo etenda daude tripartitoa eta HBren arteko erlazioak".

Azkenik, HBk mehatxua somatzen du Gobernuaren idatzian; *"testua irakurri ondoren mehatxua baino ez dugu somatu bertan, botere zapaltzaileei aurre egiten dionari mehatxua eta errepresioa. HB ez da egun hartan gertatutakoaren erantzule, hilaren 4an gertatutakoa egungo egoerak sortarazten duen baserre biziaren ondorio baino ez baita. Errespetatuz presoenguz eskubideak, hori baita honelako gertaerak ez errepikatze modu bakarra. Mehatxuekin ez gaituzue kokilduko. Presoenguz eskubideen aldeko apostu gogorrari eutsiko dio HBk euskal preso guztiak Euskal Herrian batu arte"*.

Elikadura

Baserriko okela

- Zein da baserriko ganaduak izaten duen prozesua?

- Baserritarrek eurek landatutako produktu naturalekin elikatzen dute txahala: erremolatxa, belarra, alpapa, artoa, habak, garagar irina eta horrelakoak; granja batzuetan, berriz, kanpotik ekarritako beste produktu batzuk erabiltzen dituzte. Bertakua ez diren produktuekin hazten dute ganadua: koko olio, animala irinak, okindegiko subproduktuak e.a...

Kontsumitzaileok baserritarrek egiten duten lana errekonozitu beharra daukagu, alde haundia dago txahala modu naturalez loditu eta hormonekin egitearen artean. Jendea konturatzen hasi da eta Labela gehiago eskatu beharko luke, lehen pausu bat izango litzateke.

- Bergarako kasuan, zein da egoera?

- Ganaduaren kalitatea oso ona da Bergaran. 20 urte daramatzagu ganaduaren egoera sanitarioa aztertzen, brucellosis (Maltako sukarra), tuberkulosia, behien perineu-

monia edo leukosiaren kontrako kanpainak eginaz. Horrez gain, urtero bi desparasitazio egiten ditugu. Hemengo baserritarrek okelatara espezializatu dira eta esan behar da hemen O indizea ematen dela, hau da, ez dela



JULIO ETXEBERRIA
(Albaitaria)

inolako positiborik egon (gaitzik gabeko ganadua da hemengo). Gipuzkoa jarraitu beharreko erueda da alde horretatik.

“Hemengo baserritarrek egiten duten lana eta esfortzua errekonozitu beharko genuke”



Baserritarrek produktu naturalekin elikatzen dute txahala.

- Baina beste toki batzuetan baino haragi gutxiago jaten da hemen...

- Jendeak kolesterolari beldurra dio eta bestalde hormonazioekin (klenbuterola, etabar) eta behi eroen kasuekin kontsumoa zerbait gutxitu da. Baina hemen jaten den kantitatearekin (11 Kg. urtean, Frantzian 28 Kg. jaten dituzte) ez dago kolesterolari beldurra izan beharrik. Bestalde, hemengo baserritarrek ez dizkio ganaduari ez hormonak ez klenbuterolik ematen, dituen hiruzpatalu behiekin ezin baita horrela ibili. Eta azkenik, hemen ez da behi eroen kasurik eman. Beraz jendeak okela jateko duen beldurra arrazoirik gabekoa da.

- Horrela gauzak, jendeak kalitateko okela erreklamatu beharko luke beraz...

- Horrela da, bai. Konfiantzazko harategiari bertako txahala eskatu behar zaio. Materia prima primerakoa da txahala produktu onenekin loditzen delako hemen. Beraz, kontsumitzaileak kalitate hori eskatu behar du eta Labela garantia bat da, ganaduaren prozesu osoa zaintzen baita. Uste dut hemengo baserritarrek egiten duten lana eta esfortzua errekonozitze-ko garaia iritsi dela.

ileapaindegia

eder gela

disdira

Masterreka, 7 • Tfnoa: 76 00 55



Matxiategi
Elektragintza
C.B.

ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA

Fleming Dokorea, 5
☎ 76 19 94

Musika Banda

Bergarako musika talderik beteranoena



Gaur egun 70 musikok osatzen dute Udal Musika Banda. Batazbesteko adina 27 urtekoa da.

Santa Zeziliak, III. mendeko erromatar martiri kristauak, musikarekiko zaletasun berezia zuen. Hau dela eta, musikari-en zaindari bihurtu zen. Gaur, azaroak 22, Santa Zezilia eguna dela eta, herriko musika talderik beteranoenari buruz, Udal Musika Bandari buruz berba egiteko aprobetxatu dugu.

Udal Musika Banda, Bergarako musika talderik zaharrena

da. Musika Bandako kideek, urtero egiten duten moduan, Santa Zezilia ospatuko dute, baina ostira-lean izan beharrean igandean. Hainbat ekitaldi antolatu dituzte eguna ospatzeko: goizeko hamarretan meza, ondoren kalejira, gero kontzertua eta amaitzeko bazkaria.

Musika herrikoia eta erromeriak

Bergarako kaleek, aspaldi ezagutu dituzte Udal Bandaren doinuak. Jantzi dotoredun musikariek goiz eta arratsalde, alderik alde, bazter guztiak miatzen zituzten bergararren belarriak musi-

kaz girotuz. Baina Udal Musika Banda sortu aurretik, bazegoen musika herrikoia jotzen eta erromeriak alaitzen zituen talde zaletu bat.

Baliabide eskasak, instrumentu gutxi eta zuzendari gabe egon arren, meritu handiko lana egiten zuten.

1978. urtean Gipuzkoako Banden Txapelketa antolatu zen lehenengo aldiz eta Bergarako Udal Musika Bandak irabazi zuen.

Udal Musika Bandaren hastapenak

1832. urteko otsailaren 19an, Bergarako Udal Musika Banda ofiziala sortu zen eta 1897an, Udalak, bandako zuzendaria aukeratzeko oposaketak egin ondoren, Ramon Ruiz valentziarra izendatu zuen zuzendari ofizial. Orduan ez zegoen eskolarik eta musika ikasteko oztopoak izan arren, lehen zuzendaritza ofizialak 1909. urtera arte iraun zuen. Urte berean, Ignacio Gonzalez Escala, Seminarioko musika irakaslea eta organista zenak, bandaren zuzendaritza hartu zuen, 1952. urtean jubilatatu zen arte.

Garai horretan, bandak, aldaketa nabaria jasau zuen Ignacio Gonzalez zuzendariari ezker. Bandako partaideek, musika ikasteko eta doinu ezberdinak jotzeko aukera izan zuten; euskal kantak, kontzertutarako obrak... sarri entzuten ziren harrez gero.

Gonzalez familia

Ignacio Gonzalez Escalak zuzendaritza utzi zuenetik, familiakoak izan dira bandaren ardur hartu dutenak.

Gonzalez Escalak bost seme eta alaba bat izan zituen. Seme guztiak musikariak eta hainbat herritan banda eta orkestren zuzendari izan dira. Alaba berriz, musika ikasketak izan arren, etxeko lanak egiten geratu behar izan zuen ama hil ondoren. Semeetariko bat, Miguel Gonzalez Bastida, 1952. urtetik 1986. era arte Bergarako bandako zuzendari izan da. Kalitate instrumentala eta musikariaren ikasketak hobetzeaz

gain, bandaren harrobi gisa, Musika Eskola sortu zen bera Udal Musika Bandako zuzendari zela.

Miguel Gonzalez Bastidak eman zuen azken kontzertua, 1986ko Gabonetan izan zen. 1987ko, Erregetako kontzertua, ostera, Alfredo Gonzalez Chirlaque bere semeak zuzendu zuen eta ordutik Udal Musika Bandaren buru da.

Maila paregabea

Bergarako Udal Musika Bandak, Euskal Herriko eta estatuko lehiaketa askotan parte hartu izan du, sari garrantzitsuak lortuz. Txapelketetan parte hartzeak, banda bultzatzea suposatzen zuen eta ondorioz kalitatea hobetzea.

Urte askotan Bandak, orkestraren funtzioa bete du. Bestalde, Udalbatza eta prozesioak lagundu, eta dantza egiteko doinuak eta erlijio musika eskaini ditu besteak beste. Herrian entzuten zen musika bakarra, bandarena zen.



Musika Eskolari esker "gaztetu" egin da banda azken urteetan.

Alfredo Gonzalez Chirlaqueren ustez, "egun osorako irteerak, klaseak, entsaiuak, e.a. zirela eta, bandako kide izateak dedikazio berezia eskatzen zuen. Bergaratik kanpo jotzen zutenean esatera-

ko, lan eguna goizeko zazpitan kalejirarekin hasten zen. Ondoren, korporazioari lagundu, meza nagusian eta prozesioan parte hartu, eta arratsalde eta gauean dantzaldia alaitu. Gaur



Azken urteetako emakumezko kopururik altuena dago gaur egun bandan.

egun, orduan egiten zen lana egingo bagenu, ez ginateke 70 lagun izango”.

Metalezkoak ziren gehien erabiltzen zituzten instrumentuak. Zaharrak, eskasak eta merkeak zirenez, doinuak interpretatzerako orduan, zailtasunak izaten ziren. Hala ere, garaiko aldizkariak ziotenez, Bergarako bandak maila handia zuen. Iruñako bandarekin batera, Euskal Herriko onenen artean omen zegoen.

Disziplina eta sakrifizioa

Bandaren ezaugarri nagusia disziplina izan da. *“Bandako kide izateak sakrifizioa eskatzen du, entsaioak, antolaketa eta ordutegia bete behar direlako. Orain ere, jende gazte asko dago eta jaietan, esate baterako, sakrifizioa suposatzen du goiz jaikitzeak”.*

Banda sinfonikoa

Bandak, denboraren poderioz, aldatu egin dira eta gaur egun dauden ia denak sinfonikoak dira.



Datorren otsailean 165 urte beteko ditu Udal Musika Bandak.

Musika mota ezberdina interpretatu dezakete. Atzerrian ez bezala, inguruko bandetan zurezko instrumentuak aurki ditzakegu. Honek errepertorioa zabalagoa izaten laguntzen du. Bandetarako espreski konposatzen diren obrak jotzeaz gain, soinu bandak eta orkestretarako obrak ere interpretatzen ditu Udal Musika Bandak

70 lagun

Gaur egun Udal Musika Banda 70 lagunek osatzen dute eta batz besteko adina 27 urtekoa da. Urte osorako egutegia bandaren eta Udalaren artean erabakitzen da. Urtean zehar, 14 kontzertu, zazpi kalejira, korporazioa Pazkuetan eta San Martinetan lagundu eta danborrada egiten dute.

Bergaratik kanpo, Antzuolan, Soraluzen eta beste hainbat herritan izaten dira.

1978. urtean Gipuzkoako Banden Arteko Txapelketa antolatu zen lehenengo aldiz eta Bergarak lehen postua lortu zuen. Harrez gero, ez dira lehiaketa gehiagotara aurkeztu.

Gaur egun Gipuzkoan 20 banda inguru daude,

BERRIGARA aldizkariak ondorengo bi lanpostuak betetzeko langileak behar ditu:

MAKETATZAILEA

- Zer eskatzen da? Erdi mailako ikasketak. Autoedizio programetan esperientzia izatea: Quark X Press, FotoShop, Freehand. Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da? Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

KAZETARIA

- Zer eskatzen da? Lizentziatu mailako ikasketak. Euskaraz, ahoz zein idatziz ondo moldatzea.
- Zer eskaintzen da? Urtebeteko kontratu laborala, lan-jardun osoz, luzatzeko aukerarekin.

Informazio gehiago jaso nahi izanez gero, Berrigara aldizkari (Errotalde Jauregia) jo daiteke edo 76 03 97 telefonora deitu. Curriculum Vitae eta eskabideak aurkezteko helbidea eta epea: Berrigara astekaria (Errotalde Jauregia) 20570 BERGARA, abenduaren 5a baino lehen.

guztiak musikari zaletuz osatuak, eta Bergarakoa da sortu zenetik etenik gabe jotzen izan den barkarra. Euskal Herri mailan eta baita Estatuko banden artean ere, onenen artean dago, Valentziakoekin batera, Bergarako Udal Musika Banda. Bergarako bandak tradizio handia sortu izan du Bergarako hainbat familien artean. Momentu berean, familia bereko hiru belaunaldi batera jotzen izan dira.

Hamar urte zuzendari

Musika Eskolak, konpromezu berezia du bandarekin. Esan daiteke bandaren harrobi dela: ikasleak gertu daudenean eta bandak dituen beharren arabera, ikasleek bandako partaide izateko aukera dute. Alfredo Gonzalez Chirlaquek hamar urte egin ditu Udal Musika Bandako zuzendari. *"Astean bi entsaiu izaten ditugu, astearte eta ostegunetan. Erreperitorioari dagokionez, zebatzsun handia eduki behar da. Lehenengo eta behin, bandak duen maila hartu behar da kontutan. Ondoren, aukeratutako obrak, zerbait berria ikasteko balio izan behar du eta entzulearentzat eta musikariarentzat atsegina izan behar da. Niri kontzertuetan denetik jotea gustatzen zait".*

Bergarako Udal Musika Bandak 165 urte beteiko ditu datorren otsailean. Azken urteetako ohiturari jarraituz, Santa Zezilia eguna ospatuko du datorren domekan. Eurek ezezik, herriko beste hainbat musika taldek ere ospatuko dute Santa Zezilia.



Eugenio Lacalle

67 urte. Bandako kide zaharrena. Tronpeta jotzen du eta 23 urte daramatza bandan.

Zer suposatzen du zuretzat bandako kide izteak?

Asko. Musika oso gustokoa izan dut beti. Banda militarretan ere izan naiz baina gaur egun Bergarako Udal Musika Bandan dagoen giroa oso ona da. Jende gaztearekin egoteak izugarri poztzen nau. Oso ondo hartu naute. Bergarako bandak maila altua du eta bertako partaide izatea oso berezia da. Niregatik balitz, ez nuke banda inoiz utziko baina adinak ez du barkatzen eta poliki poliki gaitasunak galdu egiten dira. Gazteei ere tokia utzi behar zaie.

Oian Vega

15 urte. Bandako gazteena. Perkusioa jotzen du.

Zergaitik sartu zinen bandan?

Perkusioa ikasten hasi nintzen Musika Eskolan eta bandako kide izateko aukera aprobetxatu nuen. Urte bat eramaten dut bandan eta oso gustora nago. Giroa ezinhobea da eta kontzertuetan jotzea oso atsegina da, batzuetan goiz jaiki behar bada ere. Mota ezberdinetako erritmoak jotzen ikasi dut eta hori "Wonder Brass" taldean jotzeko lagungarria da. Etorkizunari begira, orkestra handi batean jotzea izugarri gustatuko litzaidake.



Martin Gantxegi


80 urte. Bandako partaide ohia. Jubilatua.

Ze ezberdintasun dago lehengo bandaren eta gaurkoaren artean?

Gaur egungo bandan instrumentu gehiago eta musikari gehiago daude. Orain 70 partaide ditu bandan eta ni ibili nintzenean, 36 inguru ginen. 1927an, 11 urte nituela, hasi nintzen bandan eta harrez gero, Bermeon eta gerra garaian ere bandetan jotzen ibili naiz. Hiru belaunaldi ezberdinetako zuzendariak izan ditut; Ignacio Gonzalez Escala, bere semea Miguel Gonzalez Bastida eta honen semea, Alfredo Gonzalez Chirlaque. Azken kontzertua 1989an jo nuen, baina gaur egun bandako kontzertu gehienak entzutera joaten naiz.



Zein iritzi daukazu edertze lehiaketei buruz?



Jose Monterroso

Ondo daude. Baina edertze lehiaketak baino, kulturismo exhibizioak nahiago ditut. Nik, ez daukat sekulako gorputzik, baina ez litzaidake inportatuko joatea...



Jone Curado

Niri berdin zait, ez zaizkit interesatzen. Egia esan, ez ditut jarraitzen baina ez daukat ezer horrelako lehiaketen kontra. Ni behintzat ez nintzateke joango.



Miguel Angel Jorna

Ez naiz sekula horrelako lehiaketa batean egon baina niretzat dena dirua da horrelako lehiaketetan. Ez, ez nuke parte hartuko.




Angel Izuskiza

Ez ditut jarraitzen baina ez daukat kontrako iritzirik. Telebista parean tokatzen bazait ikusten dut baina ez noa horretara. Parte hartu? Bai zera!



Elena Manso

Ez zaizkit interesatzen baina horrelako lehiaketak jarraitzen dituen jendea baldin badago, aurrera. Ezta zoratuta ere ez nintzateke joango.



Igor Quintana

Txorrada bat iruditzen zait. Ikusi batzutan bai, lagunartean, baina ez daukat aparteko interesik horretan. Ez dut uste horrelako batera joango nintzatekeenik.

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekale, 8 Tfnoa: 76 31 02

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

EGUREN


GESTORIA

Maria Pilar Eguren Díez

Kolegiatutako administrazio gestorea

Simon Arrieta Plaza, 3 behea

☎ 76 21 65 / 76 24 45



Kontraesanak?

Ez dakit gure aurrekoei gauza bera gertatuko zitzaien, baina benetan gaur egungo munduan suertatzen dena gero eta uler-gaitzagoa izaten da, sarritan komunikabideetan irakurtzen edo entzuten dugun zenbait berrik aho zabalik uzten gaituzte eta nekeza egiten zaigu nondik norakoak eta zergatiak konprenitzea. Hauxe bera etorri zitzaidan burura duela gutxi egunkari batean hau bezalako titular bat irakurtzean: "Herriko aberatsen biltegi-tako zerealarekin munduko gosea ezaba daiteke"; edo beste hau: "Urteko produkzioaren %2 nahikoa da munduko desnutrizio osoa aste gutxitan ezabatzeke".

Ez pentsa horrelako esaldi borobilak gutako baten batek "inspirazio" momentu batean esan dituenik, FAOk Erromako elikadurari buruzko goi bileran aurkeztu duen azterketa batek baizik. Harrigarria ezta? Nik neuk, ostera, honetaz orain arte nekien bestelakoa zen, alegia, XX. mendearen amaieran oraindik ere gizakiak duen arazo garrantzitsuenetakoa gosea dela, hilerio gosez milioi bat lagun, edo beste modu batean orduoro mila lagun hiltzen baitira. Larregi pentsatu barik eta bat batean bi berri haue-tatik atera litekeen konklusioa erreza dela ematen du: bietako bat ez da egia; izan ere, ez da batere ulergarria nola izan daitekeen horren arazo larria hain konponbide erreza izanik, edo beste mo-du batean, elikagaiak badaude eta soberan, nola da posible hainbeste jende gosez hiltzea? Herri garatuek biltegiatan dute-narekin nahikoa omen da, eta denbora gutxian gainera, mundu-ko erabateko txirotasuna desagertarazteko.

Baina, zoritxarrez, jakin badakigu hau ez dela errez gertatu-ko eta are gutxiago denbora gutxian. Beharbada lehen aipatuta-ko bi berriak egia dira eta konklusio honetara ailegatuz gero, oraindik tristeagoa litzateke: munduan dagoen gosea herri gara-tuek sortutako gosea dela eta ez dagoela benetako borondate politikorik egoera hori gainditzeko. Hau da problema!

Miguel Angel ALVAREZ



Bilboko giro kutsakorra

Gipuzkoar gutxi entzun dut Bilboko apologia egiten. Azken larunbat honetan ere, herritar batzuekin elkartzean "Aspaldiko, eh! Jo, non eta Bilbon elkartu behar" bezalako bizpahiru esaldi iritsi zitzaizkidan belarrietara. Kanpotik begiratuta estetikoki oso itsusia izan daiteke; baina gainontzeko zentzu guztietan ere, eza-gutzeko paradarik hartzen ez bada. Baina Bilbo maitatu nahi du-enak aurkitzen dio gauza polit anitz. Eta maitale asko ditu gero Bilbok!

Euskal Herriko hiri bakarra da; edo hirietan hiriena, nahi ba-duzue. Nongo kaleek eskaintzen dute bertakoek hainako askata-suna? Nongo kaleetan aurki daiteke hain pentsakera, izakera, kultura, herrialde, hizkuntza... ezberdinetako jendea? Nongo el-karteek eskaintzen dute hemengoek haina ekitaldi? Non zara Bil-bon bezain anonimo? Nongo turistak daude hemengoak baino gertuago errealtatetik?

Ez da hiribururik euskaldunena, ezta garbiena ere. Bertako giroa oso kutsakorra da; ez zer? Bilbotarren gaitza pertsona ira-gazkorrek bakarrik hartzen dute. Ez da horretarako sexu harre-manik edo inolako odol transfusio beharrik. Zorionez, plater be-retik jate hutsarekin ere transmititzen da.

Uler daiteke hirien zale ez direnek Bilbo ez defenditzea, bai-na ez daitezela aitzakia merkeekin Donostia bezalako ustezko hiriak defenditzen hasi, enkantu gehien aurkitzen dizkieten "zo-ragarrikeria" horiek guztiak ametsetan bizi direnentzat baitira soilik interesgarri, eta ametsetan bizi arazten gaituztenen interes. Eguneroko bizimodua ez da Kontxan oinarritzen, Leioara iristeko autobusekin izaten diren arazo, kaleetako jende langilearen kor-rikaldi eta metroaren babes faltan dauden pertsonetan baizik. Azken hauek beharbada izango dute Bilboren aurkako zeres-a-nik.

Ainhoa AGIRREAZALDEGI

**LONBIDE
OINETAKOAK**



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

Gallastegi

Jostundegia

Mahoizko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 76 10 85

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 **BERGARA**

■ **50 urte**

**Aurten 50 urte
betetzen
dituzten**

bergarrek

euren anaiarteko
eguna ospatu
zuten zapatuan.

Lehendabiziko
aldiz biltzen ziren

1946an

jaiotakoak eta

primeran pasa
zuten elkarrekin.

Guztira, **90 lagun**

bildu ziren eta

Santa Marinaran



meza entzun ondoren, afaria izan zuten Lasa jatetxean. Jarraian, gazte denborak gogoratzeko, Ibaiak taldeak alaitutako dantzaldia izan zuten. Esan bezala, sekulako giroa izan zen eta datorren urtean ere berriz biltzekotan geratu ziren. Ah, eta-zorionak guztiei!

■ **Autobus berriak**

Pesa garraio enpresak bere kabuz baliatzeko arazoak dituzten pertsoneri zuzendutako hiru autobus aurkeztu zituen joan zen barikuan Bergaran. Aurkezpen ekitaldian **Jose Julian Irizar** Garraio eta Errepide diputatua, **Antonio Alberdi** Garraio zuzendaria, **Antxon Perurena** Pesako presidentea eta bailarako hainbat alkate (**Victoriano Gallastegi** tartean) izan ziren. Autobus berri hauek, nobedade gisa, aurreko eta erdiko atea oso bazu dauzkate (23 zentimetro) eta errobera aulkia erabiltzen dutenez autobus gidariak ranpa bat luzatzeko aukera dauka. Era berean, gutxituen aulkia bidaiari zehar fijaszeko sujezio batzuk jarri dira. Eskoriatza eta Eibar arteko ibilbidean erabiliko dira autobus berriak. Volvo enpresako autobus bakoitzak 28 milioi balio izan du eta Diputazioak kostoa %40 ordaindu du.



ALBENZ

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Deco-Textil
ZANGITU

Etixerako lantzeria
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69

igok eta Txomin

Pintura orokorrean.

Paper, tela, binilo, kortxo-zoko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta bestelako imitazioak.

ANTZUOLA
☎ 76 60 39

BERGARA
☎ 76 19 98

■ **Arimen eguna**

Ohiturari jarraituz, **osintxuarrek** Arimen Eguna ospatu zuten astelehenean, azaroaren hirugarren astelehenean. Osintxuko jatetxeetan 60



lagunetik gora izan ziren afaltzen eta tradizioak agintzen duen moduan, asak, buzkantza eta odolkiak, saiheskiak, ardikiak eta gazta afaldu zuten. Era berean, nobedade bezala, arratsaldean 40 kilo gaztaina erre ziren danbolinean eta sagardoarekin batera doan banatu. Argazkiko taldeak Txuringon afaldu zuen eta afalostean **Jo eta Su** trikitalariek in amaiera ederra eman zioten Arimen Egunari. Datorren urtera arte...

Zertan dihardute ba?



Abdon Juaristi 47 urteko margolari bergararraren oleo erakusketa ikusgai izango da Bilboko Caledonia arte galerian (Ercilla, 11) datorren abenduraren 3ra arte, astebarruan 11:30etatik 13:30etara eta 17:30etatik 21:00etara. Juaristik, guztira, 35 oleo erakusten ditu Bilbon. Bere hitzetan, *“guztiak paisaiak dira, Euskal Herrikoak gebienak eta pare bat Brujas hirikoak. Nire estiloa? Figuratiboa baina nabiko pertsonala dela esango nuke, piskat diferentea”*. Datorren urtean, Abdon Juaristik Donostian eta Madrilen erakutsiko ditu bere margoak.

■ **Barçako jokalariek**

Jose Mari Larrañaga gazte bergararrak bere betiko ametsa bete zuen orain dela gutxi. Jose Mari *culè* amorratua dugu eta Barçak Valentziaren kontra **Nou Camp** futbol zelaian jokatu zuen partiduan izan zen joan zen urriaren 26an. Aurreztutako diruarekin bidaia, egonaldia eta partidurako



sarrera ordaindu zuen Jose Marik eta Bartzelonan Barçak erabiltzen duen hotel berean izan zen, bertan jokari guztiak ezagutzeko aukera izan zuelarik. Barçak 3 eta 1 irabazi zuen eta Jose Marik bere taldearen garaipenarekin eta Ronaldoren erakustaldiarekin gozatu zuen. Argazkietan Nadal eta Popescurekin agertzen da.



Airtel
HAIZETEL
Telefonia mobila
Simon Arrieta plaza, 6. Tfnoa eta faxa: 76 40 68


ZUBIETA
elektragintza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...
Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Joakin Iturbe

Joakin Iturbe (29 urte) Europan zehar ibiltzen da kotxearekin enkarguak egiten, herriko bi lantegitarako txofer lanak betetzen baititu. Orain 11 urte atera zuen gidatze karneta eta duela 6 urtetik hona kotxea da bere laneko erraminta.

- **Zenbat kilometro egiten duzu urtean?**
- Askok. Iaz, 150.000tik gora. Aurten gutxiago.
- **Egindako bidaiarik luzeena?**
- Hannoverera.
- **Zenbat multa jarri dizkizute?**
- Jaungoikuak daki!
- **Eta nor ordaintzen ditu?**
- Nik oraindik ez dut batere ordaindu...
- **Trafiko poliziarik zorrotzena non?**
- Frantzia oso gogorak dira.
- **Errepiderik onenak?**
- Alemanian eta Frantzia.
- **Eta txarrenak?**
- Hemen eta Portugalen.
- **Atzerrian, zein hizkuntzatan konpontzen zara?**
- Berba gutxi egiten dut. Ingles pixkat...
- **Jenderik jatorrena, nongoa?**
- Suitzarrak jatorrak dira.
- **Pertsonaia ospetsurik eraman**



“Jaungoikuak daki zenbat multa jarri dizkidaten!! Behin Imanol Murua, Diputatu Nagusia zenean, eraman nuen. Kotxean musika jartzen dudanean Mikel Laboa, trkitiak eta horrelakoak entzuten ditut”

duzu kotxean?

- Imanol Murua eraman nuen behin.
- **Zenbat kotxe izan dituzu?**
- Oraingoa bostgarrena.
- **Kotxerik gustukoena?**
- Citroen Xantia eta Volvo 850a.
- **Diesela ala gasolina?**
- Diesela.
- **Gidatu egunez ala gauzez?**
- Egunez. Gauzez ondo deskantsatuta egon behar duzu.
- **Puntuala zara?**
- Bai, baina beti berandu nabil.
- **Kotxean irratia ala musika?**
- Biak.
- **Zelako musika?**
- Mikel Laboa, trikitiak eta horrelakoak.
- **Bidaiak bakarrik ala lagunduta?**
- Jeneralmente bakarrik.
- **Auto-stopistarik hartzen duzu?**
- Denborarik ez...
- **Ezagututako hiririk politena?**
- Askotan hirietako industrialdea ezagutzen dut bakarrik.
- **Hobby bat?**
- Ez daukat. Bueno kamioen karrerak gustatzen zaizkit.
- **Munduko rally txapelketa ala Formula 1a?**
- Rallyak.
- **Piloto bat?**
- Schumacher.
- **Txofer ez izatekotan, zer izan nahi zenuke?**
- Ez dakit, zer esango dizut ba...? Ondo bizi naiz.

nerea zapirain
ubegun

pintura
erakusketa

NAHIKARI taberna
Masterreka, 20 ☎ 76 57 71



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxa: 76 41 54
 ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00
 Larunbatetan: 9.00-13.00

ETXEBIZITZA

Garajea salgai Bolun.
☎ 76 25 21.

Pisua salgai Arrizurin.
Hiru logela, garajerako aukera. ☎ 76 55 28/55 31 56.

Pisua alokairuan Antzuolan. ☎ 76 21 06.

Garajea (2 plaza) salgai Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

Kontsultarako lokala alokairuan. ☎ 76 07 84.

Garajea alokairuan San Lorentzon. ☎ 76 18 01.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 70 82 90.

Pisua salgai Martokuan. ☎ 76 59 96.

Pisua alokatuko genuke Bergaran. Urjentea. ☎ 78 26 52 (Arantzazu).

Garajea saldu edo alokairuan jarriko nuke Burdiñaten. ☎ 76 40 03.

Kontsultarako gelak alokairuan jartzen ditut Koldo Eleizalden, Bolun. ☎ 76 58 91.

Logela bat alokatuko nuke. ☎ 76 03 53.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 76 50 58.

Pisua alokairuan Matxiategin. ☎ 76 11 64.

Osintxun buhardilla salgai. ☎ 76 15 36.

DENETARIK

Peugeot 505 kotxea (SS-S) salgai. ☎ 76 30 01.

Taberna alokairuan herri erdian. ☎ 907 45 57 22.

Neumatiko eta Ilantak salgai, 185/60 R 14 (Golf III). 25.000. ☎ 76 31 16.

Fiat Tempra 1.400 SX kotxea (SS-AL) salgai. ☎ 77 06 48 (iñaki).

Pultsera bat agertu da, Jose Ramon 14-3-55 inskripzioarekin. Udaltzaingoa.

Opel Astra kotxea (SS-AN) salgai. Egoera onean. ☎ 76 48 47.

Gasteizera joan-etorria (8-17.00) egiteko kotxea behar dut. ☎ 76 15 76.

Ford Scorpio kotxea (SS-W) salgai. ☎ 76 28 07.

Montesa Cota 348 Trial motorra salgai. ☎ 76 61 05.

Negutegia salgai. 2.000 m2. ☎ 17 51 05.

2. eskuko motorra erosiko nuke. ☎ 76 14 70 (Asier).

Irrati kontroleko abioia salgai. ☎ 76 51 94.

Kotxe teledirijitua salgai. ☎ 76 04 63.

Pultsera bat agertu zen barikuan haur liburutegian. ☎ 77 91 62.

Taxi plaza eskualdatuko nuke. ☎ 76 44 04.

LANA

OHO klaseak ematen ditut. ☎ 76 10 17 (Rosa).

Ingeles klaseak. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 80 (Dorleta).

Neska batek etxeko lanak egin edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 64 60.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Mate eta fisika klaseak ematen dira. ☎ 76 03 72.

OHO eta BBBko klaseak ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Etxeko lanak egiten ditut (orduka). ☎ 76 48 39.

Haurrak edo helduak zaintzen ditut. ☎ 76 45 93.

Ingeles Filolojian lizentziatua, klaseak emango nituzke. ☎ 76 41 31.

Neska frantses batek frantseseko klaseak ematen ditu. ☎ 76 27 16.

Majisteritzan diplomaturako neska batek haurrak zaindu edo klaseak emango lituzke. ☎ 76 48 53.

Haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 31 96.

Lizentziatuak BBB eta UBI klaseak ematen ditut Bolun. ☎ 76 70 40.

Neska bat eskeintzen da haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko. ☎ 76 57 01.

Kabutzia**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Garnish**Bitxitegia**

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

ZAPELAITZ**Taberna**Eguneko menuak
asteleheneretik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Siaska**Dena zure
haurrarentzako**

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Ikerlan saileko azken hiru liburuak aurkeztu ziren ostegunean

Ostegun iluntzean aurkeztekoak ziren Udaltzeko Pleno aretoan Bergarari buruzko "Ikerlan saila" izenburuko bilduma osoko 9 liburuak.

Begarako historia, geografia, etnografia edota gizarteari buruz Udalak eta UNEDek bultzatutako bilduma osatzeko geratzen zirey hiru liburuak dira, hain zuzen ere, egunean aurkeztu zirenak. Jose Maria Garmendiaren "Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran"; Arturo R. Ortegaren "Begarako biztanlegoaren historia", eta Alberto Santana, Maite Ibañez, Marta Zabala eta Arturo R. Ortegak elkarlanean egindako "Casa, familia y trabajo en Bergara" liburuak dira 9 tomatoko bilduma osatzeko geratzen ziren hiru liburuak.

"Ikerlan saila"ren aurkezpen ekitaldian, Victoriano Gallastegi alkatea, Bizente Huizi, UNEDeko irakaslea eta bildumaren koordinazio lanak egin dituen, Emilio Majuelo Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea eta hiru liburuen egileak izatekoak ziren.

"Ikerlan saila" bilduma, Begarako Udalak eta UNEDeko Historia Departamenduak 1989. urtean sinatutako hitzarmenaren ondorioa da. Lehen hiru liburuak 1991ean aurkeztu ziren. Bederatzi liburuok Bergarari buruzko entziklopediatxoak osatzen dutela esan daiteke.

"Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran", Jose Maria Garmendiak egindakoa, Ikerlan saileko bilduma osatzen duten bederatzi liburuetako bat.

Ikerlan saileko bilduma osoa, 15.000 pezetatan jarriko da salgai eta liburu guztientzako artxidorea erosiz gero, 20.000 pezetatan. Liburu bakoitzak, oster, 2.000 pezeta balio du, bi liburu izan ezik: "Artea Bergaran. Erdi eta Moderno aroak" eta "Casa, familia y trabajo de Bergara", bi hauek 2.500 pezetatan jarriko baitira salgai. Bost liburu euskaraz idatzita daude eta gainontzeko laurak gazteleraz. Liburuak Kultur Etxean jarriko



IDEOLOGIAK ETA MUGIMENDU POLITIKOAK BERGARAN

Jose Mari Garmendia

Ikerlan saileko bederatzi tomatoko bilduma ezezik, Begarako Udalak argitaratu dituen beste hainbat liburu erakutsiko dira Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan.

dira salgai. Begarako Udalak 1.500 ale argitaratu ditu liburu bakoitzeko. Bilduma osoak 25 milioi pezetako kostua izan du.

Atzo Udaletzeko Pleno aretoan aurkeztu zen bilduma, abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo den Durangoko Liburu eta Diskoen Azokan ere aurkezteko asmoa dauka Udalak. Ikerlan saileko liburuak ezezik, Begarako Udalak argitaratu dituen beste hainbat liburu erakusteko postu berezia jarriko da ferian.

1	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	A ZE FLAXA ETXAGI	18	6	28	6
2.	ERROTAGAIN	15	6	21	10
3.	JAUJA OH ZEREZOS	13	6	28	19
4.	BAR CANALEJAS	10	5	17	14
5.	BILBURBAREK OPEL/LAM	10	6	23	22
6.	OGIZUN	9	5	16	18
7.	MONGATXURRA	6	5	19	16
8.	ARLOTEAK OILAGORRA	6	5	21	14
9.	MADURA INDUSTRIAS GOL	6	6	9	12
10.	UFALA	5	6	18	25
11.	ORTZI	4	6	7	14
12.	AZPEITXI JATETXEA	3	5	14	19
13.	PAGOMENDI	0	6	6	30

2	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ARTUSAMAK BERGATRANS	15	6	27	13
2.	ETXAGI	15	6	23	17
3.	UVE BIKOITZA JAM	13	6	15	17
4.	KAYAK OS JARDINEIROS	12	6	26	11
5.	AGIRREBEÑA JATETXEA	9	6	17	15
6.	SOROPOTROAK	9	6	19	16
7.	EZINLEIKE	7	5	12	12
8.	HALTZARI	7	6	18	17
9.	AGIÑASPI	7	6	13	19
10.	LA JUVE	7	6	9	13
11.	ERI	6	4	14	18
12.	INDARGORRI	4	5	3	10
13.	AUTOBEREZI	0	6	11	27

3	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	PJS	14	6	21	12
2.	JAKINA PATXARAN TEAM	13	6	21	21
3.	GUADALEST	12	6	25	15
4.	MOSKIS	12	5	22	10
5.	FAC	10	6	18	15
6.	TXIPIRON	10	5	15	11
7.	NAHIKARI HOOLIGANS	9	6	20	21
8.	NEKROFILIKOS	10	5	16	9
9.	EH BITERRAK	7	5	9	14
10.	IGANDEKOAK	6	5	15	22
11.	MRW	1	5	10	19
12.	ARI ARI	0	5	6	22
13.	CONSTRUCCIONES BERGARA	0	5	10	23

4	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MANITOU	18	6	42	8
2.	OSINTXU	16	6	25	11
3.	ARBE KIROLAK	15	6	28	20
4.	ETENGABE	12	6	27	12
5.	PANORAMIX	9	6	22	29
6.	KOMANDO PIPERRAK	9	6	17	19
7.	SLO	7	6	16	26
8.	MATXAKATEGI	7	6	12	12
9.	AMILOTX	7	6	13	16
10.	PITIXAK	6	6	19	20
11.	XURRUPAK	6	6	12	20
12.	POLIDEPORTIVO TABERNA	4	6	11	20
13.	PATA NEGRA	3	6	9	37
14.	ALDOKA MALDOKA	2	6	14	29

Jokoz kanpo



Rafa Moral

KAYAK Os JARDINEIROS

ZER MODUZ ZOAZTE TXAPELKETA?

Irregular samar gabiltza: partidu bat irabazi, hurrengo galdu...

ZURE TALDEAREN GAUZARIK ONENA ETA TXARRENA?

Onena, geure artean ondo konpontzen garena eta txarrena erregulartasun punturik hartzen ez dugula.

KANPORATU ZAITUZTE INOIZ?

Bai, gehienetan baloia eskuarekin jotzeagatik.

PARTIDUAK GOIZEZ ALA ARRATSALDEZ?

Arratsaldez.

TXAPELKETAKO TALDERIK ONENA?

Errotagain.

JOKALARIRIK ONENA?

Aitor Anton.

SARTU DUZUN GOLEADARIK HANDIENA?

11 eta 3 Autobereziren aurka.

ETA JASOTAKOAK?

Ez dakit, 3 eta 1 edo.

ZE POSTUTAN AMAITZEA ESPERO DUZUE?

Erdialdean.

LIGA PROFESIONALEKO JOKALARIRIK ONENA?

Betis taldeko Alfonso.

MUNDUKO KIROLARIRIK ONENA?

Miguel Indurain

EUSKAL HERRIKOAK?

Indurain, noski.

JATEKO PLATER BAT?

Paella.

EMAITZAK

MONGATXURRA-MADURA INDUSTRIAS GOL	1-3
JAUJA OH ZEREZOS-ORTZI	7-2
SOROPOTROAK-LA JUVE	5-1
AGIÑASPI-INDARGORRI	1-0
LA JUVE-HALTZARI	1-6
AUTOBEREZI-ERI	2-3
SOROPOTROAK-AGIRREBEÑA	0-3
KAYAK OS JARDINEIROS-INDARGORRI	6-0
UVE BIKOITZA JAM-ETXAGI	3-2
XURRUPAK-PATA NEGRA	4-0

PARTIDUAK

Zapatuan barruan

09:00:	PITIXAK-AMILOTX • ETENGABE
10:00:	OSINTXU-ETENGABE • MANITOU
11:00:	MANITOU-XURRUPAK • OSINTXU
18:00:	OGIZUN-BAR CANALEJAS • JAUJA OH ZEREZOS
19:00:	JAUJA OH ZEREZOS-ERROTAGAIN • UFALA
20:00:	BILBURBAREK OPEL/LAM-UFALA • OH ZEREZOS

Domekan barruan

09:00:	CONSTRUCCIONES BERGARA-TXIPIRON • IGANDEKOAK
10:00:	IGANDEKOAK-MRW • EH BITERRAK
11:00:	EH BITERRAK-MOSKIS • MRW
12:00:	PAGOMENDI-A ZE FLAXA ETXAGI • MONGATXURRA
13:00:	MONGATXURRA-AZPEITXI JATETXEA • PAGOMENDI
16:00:	ARLOTEAK/OILAGORRA-MADURA • LA JUVE
17:00:	AGIÑASPI-LA JUVE • KAYAK OS JARDINEIROS
18:00:	KAYAK OS JARDINEIROS-ARTUSAMAK • EZINLEIKE
19:00:	EZINLEIKE-HALTZARI • GUADALEST
20:00:	GUADALEST-PJS • HALTZARI

Domekan kanpoan

12:00:	SLO-PATA NEGRA • PATXARAN TEAM
13:00:	PATXARAN TEAM-FAC • SLO
16:00:	PANORAMIX-MATXAKATEGI • ARBE KIROLAK
17:00:	ARBE KIROLAK-POLIDEPORTIVO • K. PIPERRAK
18:00:	KOMANDO PIPERRAK-ALDOKA • POLIDEPORTIVO

OHARRA

Txapelketako kuotako 17.000 pezetak ordaintzeke dauzkaten taldeei jakinarazten zaie astelehena baino lehen ordaintzen ez badute, txapelketatik kanpo lagako dituela Antolaketa Batzordeak.

T XINPARTAK

Binakako txapelketa

Zapatuan hasiko da binakako pilota txapelketa. Bergaran, arratsaldeko 5etatik aurrera, Etxaniz eta Galartzak, Unanue eta Errastiren aurka jokatuko dute. Bestalde, Zezeagak eta Eugik, Titin eta Bernaren aurka jokatuko dute Logroñon eta Elkorok eta Nagorek, Retegi eta Lasaren kontra Tafallan. Bestalde, Baque torneoaren barruan Iñigo Martin jokalaria bergararrak final laurdenetarako txartela lortu du.

Realarekin Santanderrera

Arantzabal Lagunartek Realak Santanderren aurka abenduaren 8an jokatuko duen partidua ikustera joateko autobusa antolatu du. Izena emateko eguerdian 76 21 00 telefonora (Iñigo) deitu beharko da.

Futbito kontuak

Udalak eskatzen zuen 3.000 pezetako igoera ordaintzeko prest agertu da Futbito Txapelketako Antolaketa Batzordea. Horren truke, Udalak kanpoaldeko sareentzat gantxo batzuk jarriko ditu, baloiak erosiko ditu eta arratsaldeko ordu bietatik 4ak bitartean barruan partidua jokatzeke aukera aztertuko du.

Zulotik irten nahian, liderra hartuko du Agorrosinen BKEk

BKEko Preferente mailako taldeak Oiartzun liderraren aurka jokatuko du domekan arratsaldeko 3:30etan. Bergarrek azkenengo partiduetan ez dute emaitza onik lortu eta sailkapenaren azkenengo postuetan daude, 17. postuan hain zuzen ere.

Domekako partidua zaila izango dela esan digu Goio Arrieta BKEko entrenatzaileak: *"partidua oso gogorra izango da, talde guztiak sailkapenean parekatuak gaudete eta partidua irabaztea oso zaila da"*. Domekan Agorrosinera liderra datorrela eta, Arrietak dio Oiartzunek futbol polita egin izan duela beti: *"oiartzuarrek beti jokatu dute ondo, baina ni gehien arduratzen nauena nire taldea da. Ondo jokatuz gero, badugu irabazteko aukera"*.



Liderraren bisitaren aurrean, itxaropentsu agertzen dira bergararrak

BKEk liderraren aurkako partidurako Agirre, Iñigo eta Gallastegiren bajak izango ditu, baina Xagu eta Txonan atzelariak jokatzeke moduan daude. Arrietaren mutilek partidua bakarrik irabazi dute Agorrosinen, Zestoaren aurka, eta puntu gehien kanpoko partiduetan atera dituzte. Entrenatzaileak ez daki zergatik den hori: *"Kanpoan Bergaran baino askoz hobe*

jokatzen dugu. Talde etxean ikusi edo kanpoan ikusi eta talde desberdina ematen du. Halere, taldearekin oso pozik nago, entrenamenduetan jokalaria guztiak etortzen dira eta giro jatorra dago" dio Arrietak.

Domekarako hamarkako titularra oraindik ez dago zehaztuta, baina BKEko entrenatzaileak pronostikoa eman digu: *eta 1 Bergararen alde.*

Kotxe pilotuen azken bolantadak



Martin Egaña ez da oso fin ibili Citroen ZX Kopan.

Datorren asteburuan amaituko dute denboraldia zirkuitoetako kotxe gidari bergarrek Xerezeko zirkuitoan. Citroen ZX kopan Pablo Irizar eta Martin Egaña izango dira irteeran. Irizarrek azkenengo lasterketan ez du emaitza onik lortu, bietan 7. postuan amaitu baitu. Halere, Xerezeko proban konpententzia gogorra izan arren, podiumean amaitzea espero du. Egaña, berriz, azkenengo lasterketan ez zen izan eta gogo handiz doa Xerezera. Azkenik, Jose Antonio Egañak Citroen Saxo proban hartuko du parte.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Oiartzun**
 Preferente maila.
 Domeka. 15:30. Agorrosin.

◆ **Bergara-Zarautz**
 2. mailako erregionala.
 Zapatua. 17:15. Ipintza.

◆ **Bergara-Antiguoko**
 Ohorezko mailako jubenilak.
 Zapatua. 15:30. Ipintza.

◆ **Bergara-Intxurre**
 Lehen mailako infantilak.
 Domeka. 10:00. Ipintza.

◆ **Bergara-Elgoibar**
 Emakumezkoak.
 Domeka. 11:30. Ipintza.

SASKIBALOA

◆ **Bergara-Intxaurre**
 Kadete mutilak.
 Zapatua. 10:00. M. Lagundia.

◆ **Bergara-Renteria**
 Senior mutilak.
 Zapatua. 16:15. Kiroldegia.

PILOTA

BAQUE TXAPELKETA:

Kadete eta jubeniil mailako
 pilota partiduak.
 Final laurdenak.
 Martitzena eta eguena.
 19:00. Pilotalekua.

KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

◆ **Bergara Añorga**
 Kadete maila binaka.
 Zapatua. 12:30. Pilotalekua.

Ramon Agirrezabal

Aloña Mendiko jokalaria ohia

Ramon Agirrezabalek hainbat urte daramatza futbolean jokatzen eta azkenengo urteotan Oñatiko Aloña Mendi taldean aritu da. Oraindik gaztea izan arren, futbola lagatzea erabaki du eta erabaki horren zergatiak jakiteko berarekin hitz egin dugu.

- Zenbat urte futbolearen jokatzen?

- 26 urte ditut eta 12 urte nituenetik ari naiz futbolean jokatzen. 7 urte Bergaran, 6 urte Oñatin eta beste bat Arrasaten.

- Zergatik laga duzu futbola?

- Lehen, futbola dena zen niretako, baina orain beste gauza asko daude futbolaz gain. Orain arte gogoz eta afizioz asjakatu dut, baina orain ez daukat horrenbesteko motibaziorik eta horrela ibiltzeko, hobe da futbola lagatzea. Gainera, partiduak asteburuetan jokatzen direnez, beste gauza batzuk egiteko aukera kentzen dizu. Orain denbora gehiago izango dut beste kirolen bat egiteko, edo mendira joateko...

- Zer aldatu da irailetik hona?

- Irailean ez nuen futbolearen hasteko gogo handiegirik, baina azkenean konbentzitu egin ninduten. Orain konturatu naiz erabaki hori ez zela egokia izan.

- Oñatira joan zinean, espero zenuen hirugarren mailara igotzea?

- Ez, baina urte askoan talde berbera mantendu dugu eta talde ona osatu dugu.

- Futbolearen izandako momenturik onena?

- Aloña Mendirekin Preferente mailara igo ginenean. Beste oroitzen on bat Arrasatera joan nintzenekoa da.

- Bergarari zer falta zaio 3. mailara igotzeko?

- Taldean 5 edo 6 urtean jende berarekin jardun, talde ona osatu eta suerte apur bat izatea.

- Salto handia dago Preferentetik 3. mailara?

- Ez hain handia. 3. mailan erritmoa handiago da beharbada.


- Datorren urtean BKEN jokatzeak eskatuko balizute?

- Ezetxean nago.
- Entrenatzaile?
 - Ez nintzateke izango.
- Ze diferentzia dago Oñati eta Bergararen artean?

- Aloñan elkarrekin jokatzen urte asko daramagu. Bestalde, Oñatin partiduak ikustera jende gehiago joaten da eta afizio handiagoa dago.

- Futbolearen bete bariarik utzi duzun ametsa?

- Gorago jokatzea.



"Irailean ere lagatzeakotan izan nintzen".

“Orain ez daukat hainbeste gogo eta afizio futbolerako”



Argazkia: Agurtzane Lete

Jaunartzeak Labegaraietan

Orain dela 14 urteko argazkia da aste honetako erretratu zaharra. Argazkian agertzen diren neska-mutilek lehen jaunartzea egin zuten 1982ko maiatzaren 9an Labegaraietako San Jose elizan. Orduan ere egun inportantea izaten zen jaunartze eguna: aurreko hiletan beharrezko katekesi klaseak jaso ondoren, gaztetxoak lehen jaunartzerako prest izaten ziren eta egun batez protagonista nagusiak izaten.

Jantzi dotoreak, familiartekoen opariak, ohizko argazkiak eta jarraian bazkari ederra egun hori ospatzeko.

Esan behar da goiko argazkikoak Altos Hornosen egindako azken jaunartzeko protagonistak izan zirela. Ordutik ez da jaunartzerik egin San Jose elizan. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Amaia Goenetxea, Aitor Agirrezabal, Iban Agirrezabal, Jose Mari Anduaga eta Roberto Jauregi.

Behean: Igor Bauza, Iñigo Alkorta, Leire Agirrezabal eta Agurtzane Lete.

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxa: 76 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABAETA. ☎ 77 11 75 • Faxa: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

BERGARAKO osasun gida

■ ALBAITARIAK:

• ARATZ KLINIKA (ROMAN LAZPIUR). Mobil: 907 48 71 19	Zurradero, 6 behea	☎ 76 70 67
• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAIKO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobil: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

■ MEDIKUNTZA ESTETIKOA:

• BENITO ISABEL	Bidekurutzeta 46, behea	☎ 76 52 62
-----------------	-------------------------	------------

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
• OXIRONDO KONTSULTATEGIA	Boni Laskurain 2, behea	☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.B.	Ramon María Lili, 2	☎ 76 59 39



**Zergek itolarria
ematen badizute...**

**Konfidantzazko pertsona
batek lasai zaitzake.**

Informa zaitez sukurtsaletan.